

# Irakasleentzako orientabideak

## SARRERA

Proposamen honek elikagaia, osasuna eta hezkuntza ditu hizpide, munduko milioika pertsonak ez baitaizkate oinarrizko eskubide horiek aseta. Bi ideia nagusi daude; lehenengoa, pertsona guztiak daukatela oinarrizko premiak aseta edukitzeko eskubidea; eta bigarrena, eskubide unibertsala izan arren, baldintzen banaketa injustua dela eta, ez direla eskubide horiek betetzen.

## HELBURUAK

Giza Eskubideak munduan zenbateraino ez diren betetzen ezagutzeko, bereziki elikadura-, osasun- eta hezkuntza-eskubideak.

Eskubideak ez edukitzearen ondorioz, milioika pertsonak bizitza duina ez edukitzeko dauden arrazoiak aztertzea.

Pobrezia eta bazterkeria soziala dakartzan gaur egungo egoera ekonomikoa aldatzeko premiaz gogoeta egitea.

Giza Eskubideak hobeto betetzeko alternatiba indibidualak eta kolektiboak bilatzen parte hartzea.

## EDUKIAK

### Jarrerak, balioak eta arauak

Giza Eskubideen balioespina.  
Norberarenak ez diren errealitatearekiko enpatia eta errespetua.  
Elkartasuna eta justizia soziala eragitea.  
Arazoak modu justuan konpontzeko parte-hartzea eta interesa.

### Kontzeptuak

Pertsonen oinarrizko eskubideak.  
Oinarrizko eskubideak mundu osoan ez direla modu beran betetzen erakusten dituzten adierazleak.  
Oinarrizko premiak ase gabe edukitzeko kausak eta ondorioak, indibidualak zein kolektiboak.

### Prozedurak

Testu batzuen irakurketa eta azterketa.  
Datu estatistikoak eta grafikoak interpretatu.  
Eztabaida eta argudioak.  
Kausa eta ondorioa zer diren argitu.

## SAIOAK ETA METODOLOGIA

4 eskola-ordu. Antolatzeko bi modu iradokitzen ditugu:

- Taldeak hiru eskubideak hiru saiotan landu; saio bakoitzean, bat. Saio oso bat alderatibak garatu eta laburpena egiteko utzi.
- Gela hiru taldetan banatu. Talde bakoitzak eskubide bat landuko du bi saiotan. Hirugarren saioan, talde bakoitzak egindako lana batera jarri; eta laugarrenean, alternatibak garatu eta laburpena egin.

## IKASKUNTZA-JARDUERAK

### IRUDIA IRAKURTZEN

**Helburua:** Gaiari buruz motibatu eta alde aurreko ideiak azalratzea. Ondoren, azaleko testua irakurriko dugu guztien artean.

**Deskripzioa:** Azaleko argazkitik eta 25 eta 26. artikuluetatik abiatuz, galdera batzuk egiten dira modu kolektiboan.

**Orientabideak:** Ondoko galderak egiten hasiko gara, gelako guztien artean erantzun zuzenak ematen saiatuz.

Zer da eskubidea? Zer da betebeharra? Adibideak eman behar dira.

"Eskubidea" zer den argitu ondoren, galdera egingo dugu: Zer da Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala? Zeinek eta noiz egin zuen? Galdera honetan, NBERi buruz, Giza Eskubideen Deklarazioari buruz eta datei buruzko informazioa eman beharko du irakasleak. Ondoren, azaleko testua irakurriko da guztien artean, 25 eta 26. artikuluei dagokien testua, alegia. Ondoren, beste galdera bat egingo da: Eskubide horiek betetzen al dira zuen artean? Deklarazio horrek izaera unibertsala du, baina, eskubide horiek mundu guztian betetzen direla uste al duzue?, munduko zein lekutan betetzen dira gutxien?

Azken bi galdera horiei erantzuteko, ikasleek Interneten bidez lor dezakete informazioa. Horrela egiteko modurik ez badago, erantzunak bilatzen lagundu beharko die irakasleak.

---

## RASMÁN, BURKINA FASOKO MUTIL BAT

**Helburuak:** Giza Eskubideen Deklarazio Unibestalaren 26. artikulua ezagutzea. Hezkuntza pobrezia erazteko funtsezko tresna dela ezagutzea. Milioika pertsona eskolatu gabe egoteko –berezi emakumeak eta haurrak– dauden arrazoiak, eta horrek ekar ditzakeen ondorioak.

**Deskripzioa:** Kasu konkretu batetik eta mundu mailako informazioz abiatuz, ikasleari, ulermen-irakurketari dagozkion galderak proposatzen zaizkio, modu kolektiboan. Ondoren, simulazio-jarduera bat egin daiteke, ikasleak hezkuntzak norberaren garapenerako duen garrantziaz jabe daitezen. Jarduera hau erantzun indibiduala edukiko duen galdera batekin amaitzea gomendatzen dugu, eta ebaluatzeke balioa izan dezake.

**Orientabideak:** Lehen hiru galderak modu kolektiboan egin behar dira, ideia-zaparrada teknika erabiliz, adibidez, eta erantzunak arbelean jasoz. Hau da, lehenik, esaten den guztia idatzen da, eta gero, eztabaidan zehar, erantzun egokiak erabakitzen dira. Lehen galderari dagokionez, arrazoi familiarrak (etxean lagundu, lan egin...) eta nazioanalak (baliabide falta, material eskasia, arazoak...) bereizi behar dira. Erantzunak erabakitzen direnean, ikasleek beren fitxan idatziko dituzte, eta horrela, behar besteko informazio edukiko dute monografiko honen azkenean egingo den azken ebaluazioa osatzeko. Hirugarren galerari dagokionez, gogoratu hau: "gizonezko bat hezten denean, pertsona bat hezten da, baina emakume bat hezten denean, familia hezten da".

"X Espediente" izeneko jokoari dagokionez, ikasleari proposatutako egoeraz bakarka hausnartzea eskatzen zaio, eta gero, hiru arazoei buruzko batera-jartzea egingo da.

Azken galdera landutako guztiaren laburpena da. Erantzuten laguntzeko, grafiko ilustratibo bat erakutsiko zaie. "Pobreak dira" esan nahi du, urtean *per capita* AEBko 3.125 dolarreko errenta baino gutxiago edukitzea. Espainian AEBko 14.490 dolar.

---

## ELIKAGAIAK GUZTIENTZAT

**Helburuak:** Munduko goseari buruzko mitoak aztertzea. Gosearen arrazoi batzuk ezagutzea. Elikadurari dagokionez, Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala ez dela betetzen ezagutzea. Hegoko populazio pobretuak elikadura-ekasari nolako konponbidea bilatzen dioten ezagutzea.

**Deskripzioa:** Munduan dagoen goseari buruzko hiru informaziotatik abiatuz, erlazio-ariketa bat proposatzen da, ohiz erbiltzen diren baieztapen zurigarriak ezeztatzen saiatzeko.

**Orientabideak:** Hiru informazioak bakarka irakurriko dira, eta ondoren, talde txikiak eginez, erlazio-ariketa komentatuko da. Talde bakoitzak bere emaitzak komentatuko ditu eta, denen artean, baieztapenak aztertuko dira, emandako argudioetatik abiatuz.

Gero, kasu konkretu bat irakurriko da, bakarka berriz. Bakoitzak elikadura falta adierazten duen kasua edo arrazoi azpimarratuko du testuan. Gaia konplexua denez, kausa batzuk baino ez dira ematen, herrialde pobreek herrialde aberatsekiko duten menpekotasuna adierazteko.

Amaitzeko, ulermen-galdera bat egiten da jantoki popularrei buruz. Une egokia izan daiteke hori Hegoko hainbat herritako herri-antolakuntzari bruz informazioa eskatzeko. Aldi berean, herrian edo auzoan era horretako jarduerak egiten dituzten elkarte eta erakundeekin harremanetan jartzeko eskatu ahal zaie ikasleei.

---

## OSASUNA EDUKITZEKO ESKUBIDEA

**Helburua:** Osasunak pertsonen ongizate eta duintasunerako duen garrantzia ezagutzea. Miloika pertsonen munduan funtsezko osasun-zerbitzuak izateko dituzten zailtasunak identifikatzea.

**Deskripzioa:** Ikasle bakoitzaren eta Elayan-en osasun-karneta egitea. Karnetak bete ondoren, elkarren artean alderatu behar dira, osasun-zerbitzuei dagokionez dauden ezberdintasunak argi uzteko.

**Orientabideak:** Ikasleak modu indibidualan bete behar du bere osasun-karneta. Horretarako, familiari eskatu beharko dizkio datu batzuk. Gero, Elayan-en istorioa irakurtzeko eskatuko zaie, taldeka, berari dagokion osasun-karneta betetzeko. Irakurketa egin ondoren, eztabaida kolektiboan egingo da, bi karneten artean dauden ezberdintasunak ikusteko. Oso garrantzitsua da kasu bakoitzean zergatiak eskatzea, osasun-eskubide hori ez betetzeko dauden kausak eta horrek ekar ditzakeen ondorioak identifikatzeko.

---

## ZER EGIN DEZAKEGU?

**Helburua:** Gogoeta egin eta inpliazio pertsonala eskatzen duen jarrera indartzea.

**Deskripzioa:** Ikasleen pareko haur baten kasua aurkezten da. Ondoren, dilema moral bat azaltzen da, alternatiba zehatzak emanez ebatzi behar dena.

**Orientabideak:** Paskualen istorioa modu kolektiboan irakurtzea proposatzen da. Ondoren eta talde txikitan batuta, dilema eztabidatuko da: zer egin behar du Paskualek egoera horretan? Aukera-multzo bat aurkeztuko zaie, eztabaidatu eta hautatzeko. Azkenik, talde bakoitzak bere erabakiak azalduko ditu. Edozein erabakiren garrantzia ondo argitzea gomendatzen dugu, eta horretan norberak duen erantzukizuna era bai.

---

## TXOSTEN KONFIDENTZIALA

**Helburuak:** Egindako ikaskuntzaren oinarriko ideiak laburbiltzea. Munduan milioika pertsonen pairatzen duten injustiziaren aurrean, gogoeta eta aukera egitea.

**Deskripzioa:** Simulazio-joko bat proposatzen da, zeinean ikasleek NBEren mandatua jasotzen duten, Giza Eskubideen egoeraz munduan txosten bat egiteko.

**Orientabideak:** Aurrez aurretik landutako gaiak gogoraziz, irakasleak simulazio-joko batetik abiatuz motibatuko dituzte ikasleak. Joko horretan, txostenean eskatutako datuak bete beharko dituzte, modu indibidualan eta NBEko aditu modura. (Datu guztiak lehenik egindako jardueretan azaltzen dira). Ondoren, modu indibidualan eta laburpen modura, gomendio batzuk edo konponbide posible batzuk idatziko dituzte, aurkeztutako Giza Eskubideak bete daitezen.

---

Lehen mailako hezkuntzako 3. zikloa

# GIZA ESKUBIDEEN DEKLARAZIO UNIBERTSALA

**25. artikulua: Pertsona orori dagokio bizi-maila egokia, berari eta bere familiari osasuna eta ongizatea ziurtatuko dizkikona, eta bereziki, jantzia, etxebizitza, osasun-zerbitzua eta beharrezkoak diren gizarte-zerbitzuak**

**26. artikulua: Pertsona orok du hezkuntza izateko eskubidea. Hezkuntzak doakoa izan behar du. Oinarrizko instrukzioa derrigorrezkoa izango da...**

Egilea:  
Mireia Claverol, Sibila Vigna eta Joan Gratacós



Intermón  
Oxfam

# RASMAN, BURKINA FASOKO MUTIKO BATA



© Tomás Abella - Intermón Oxfam

Rasman-ek 12 urte ditu, gurasoekin eta bost anaia-arrebekin bizi da Gorugan, Sahel eskualdeko herri batean, Burkina Fason. Bera eta anaia nagusia oso goiz jaikitzen dira egunero, eta etxeko lan batzuk egin ondoren, hala nola putzura ur bila joatea, bazkaria atontzeko egurra bildu eta abereei jatena eman ondoren, eskolara joan ohi dira.

Rasman bizi den nekazaritza-eskualdean, geroago eta zailagoa da bizirautea, landareak geroago eta urriagoak direlako ur faltaren ondorioz, larreak gehiegi ustiatzen direlako eta arbola-mozketa izugarria egin eta gero, lurra asko higatu delako.

Rasman-ek 4 km egin behar izaten ditu eskolara iristeko, zeren, herri hartan, Gobernuak baliabide gutxi jartzen baititu hezkuntzarako, eta, beraz, eskola gutxi daude. Han bere lagunak topatzen ditu, eta elkarrekin ikasten dute irakurtzen eta idazten. Askok ikasten saiatzen da, gelan mahai gutxi egon arren eta liburuak eskas. Bere familiak ezin dizkio koadernoak eta lapitzak erosi, baina oso zoriontsu sentitzen da, haur askok, batez ere neskatok badira, ezin direlako eskolara joan, eta berak bai.

Rasman-en gurasoek biziki estimatuko lukete hura eskolara huts egin gabe joatea, baina, sarri askotan, herriko auzolanetan parte hartu behar du, dikeak eta hormak eraikitzen hasi baitira uraren sakabanaketa ekidin eta Saharako basamortua geldiarazteko.

Rasman-ek ere biziki estimatuko luke eskola utzi behar ez izatea, jakitun delako, hezkuntza on baten jabe izanda, etorkizun hobe lortuko duela, bai beretzat, bai eta bere familiarentzat ere. Horrela ez izanik, Ghanara migratu beharko du, kakao-alorretan lan egitera, edo Europara.

## BA AL ZENEKIEN...

**Munduko 125 milioi haurrek ez daukatela eskolara joaterik.**

**Eskola-adinean dauden 150 milioi haurrek eskola uzten dutela eskolan lau urte bete baino lehen.**

**872 milioi pertsona heldu analfabetoak direla. Horietatik bitik hiru, emakumeak.**

**Munduko populazio guztiari hezkuntza emateak hezkuntzan 8000 milioi dolar gehiago sartzea eskatuko luke munduan. Diru-kopuru hori beheko puntu hauen parekoa da:**

- Lau eguneko gastu militarrek munduan.
- Espainian 1996an defentsan sartu zen dirutza osoa.
- Europako populazioak urtean izozkitan gastatzen duena baino gutxiago.
- Zori-jokoetan Madrilan eta Katalunian 1996an gastatutakoa.
- Europako eta AEBetako jendeak etxeko abereei jaten ematen gastatzen dutenaren erdia.

**Zeintzuk dira munduko hainbat neska-mutilek eskolarik ez izateko arrazoiak?**

**Zer ondorio dakarzkie eskolara joaterik ez izateak?**

**Zure ustez, zergatik neskak mutilak baino gutxiago joaten dira eskolara?**

Arrazoi familiarrak	Arrazoi nazionalak
Ondorio familiarrak	Ondorio nazionalak

# X ESPEDIENTE IZENEKO JOKOAN

Eman dezagun X Espedienteko pertsonaia bat zarela. Abduzitua izan zara. Esnatzen zarenean, Asiako herri batean zaude, Jakartan. Ez duzu inor ezagutzen, aldean daramazuna baino ez daukazu. Herri horretan ez dago zure herriko enbaxadarik. Zure familia osoa, adiskideak eta ezagunak desagertu egin dira. Erabat bakarrik zaude!




**Pobre bihurtuko zinake, ala gizarteko kide denborarekin? Zein da dagoeneko daukazun baliabidea, eta beraz, aurrera egiten lagunduko zizuna? Zergatik diogu hezkuntza ezinbestekoa dela pobreziatik irteteko?**


Nigerren egindako ikerketa batek erakutsi du erlazio zuzena dagoela pobrezia eta eskola-gabeziaren artean. Egindako ikerketak familiaburuaren ikasketa-maila identifikatu zuen.

**Hauexek izan ziren ateratako emaitzak:**


## POBREZIA-MAILAK



Familiaburu eskolatu gabeko familiak



Familiaburuak lehen mailako hezkuntza zuten familiak



Familiaburuak bigarren mailako hezkuntza zuten familiak

## ELIKAGAIAK GUZTIENTZAT

**Ba al zenekien...**

Munduan elikagai nahikorik badela. Gaur egungo elikagai-ekoizpena 8000 milioi pertsonen jateko premiak asetzeko haina dela; hots, gaur egun planetan bizi den populazioabaino %40 bider handiagoko populazioarena.

Gaur egun, munduko populazioaren %25ek dauden elikagaien %75 kontsumitzen du.

**Elikadura pertsona guztien eskubidea da, Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalean jasoa.**

**Alabaina:**

- Munduko 82 herrialde gose dira, horietatik 41 Afrikakoak.
- Urtean 25 haur minutuko hil dira munduan elikadura eskasagatik.



**Hegoko herrialdeetan, egunero 35.000tik 40.000ra haur hil dira hainbat gaixotasunek jota. Horietatik %60 hiru gaixotasun hauek jota hiltzen dira: neumoniak, beherakoak eta helgorriak. Hirurak prebenigarriak dira, eta diru gutxiz senda daitezke.**

**Munduan armatan egun bakar batean gastatzen denarekin, 250.000 haurren heriotza ekidin daiteke astean.**

# ARGI DITZAGUN GAUZAK

Bila ezazu eskuineko zutabeen, munduan dagoen goseari buruzko mitoak ezeztatzen dituzten datuak.

<ol style="list-style-type: none"><li>1. Gosea dago, elikagai gutxi daudelako</li><li>2. Gosea dago, lur gutxi daudelako.</li><li>3. Gosea populakuntza-dentsitatearen ondorioa da.</li><li>4. Gosearen arazoa konpontzeko, elikagai gehiago ekoiztea da lehena.</li></ol>	<ol style="list-style-type: none"><li>a. Garapen teknologikoari esker, elikagai gehiago ekoiztea lortu da. Halaber, horrek baliabide gutxi dituzten nekazari txikiak baztertu eta pobretu egiten ditu, ezin baitute konpetitu ustiategi handi eta moderenoekin.</li><li>b. Brasilek AEBek baino hektarea gehiago lantzen ditu pertsonako, eta bere populakuntza-dentsitatea txikiagoa da. Hala ere, Brasilgo populazioaren %55 gaizki elikatuta dago.</li><li>c. Planteako luraren %44 baino ez da lantzen. Afrikan, % 33 baino ez. Eta arrazoa da lurjabe handientzat lurra inbertsioa dela elikadura-baliabidea baino lehenago.</li><li>d. Mexikon, non nekazaritza-eskualdeetako haurren %88 gaizki elikatuta dagoen, esportatzeko abereek populazio osoak baino ale gehiago kontsumitzen ditu.</li></ol>
--	--

## ETA JENDEAK KONPONBIDEAK NAHI DITU

Azpimarra ezazu testuan, elikagaien eskasia dakartzan arrazoi edo kausak.



© Javier Rodríguez - Intermón Oxfam

Teresa kostaldeko herri txiki batean bizi da, Perun. Aurten, seigarren urtea egiten ari da. Egunero auzoko jantoki popularrean bazkaltzen du, eskolatik irtetean. Komunitateko jantokia duela hilabete gutxi ireki zen, eta Santa Margarita auzoko jende guztiaren ahaleginaren fruitua da. Jatekoa pertza handitan prestatzen da, eta familia bakoitzak osagaien bat ekartzen du: tomatea, kipula, arroz piska bat... Horrela, jantokira doan jende guztiak badu jateko plater bat.

Teresaren herrian, familia gehienek lurra lantzen dute. Camilo eta Susana Teresaren gurasoak aitona-amonengandik eskuratutako lur-zati txiki baten jabe dira. Baina uzta saldu ondoren geratzen den etekina eskasa da familiaren oinarritzko premiak asetzeko: elikagaiak, eskolako materiala, jantziak, botikak, mediku-kontsultak, atsedena, etab.

Camiloren iritiz, gauzak asko aldatu dira bere aitona-amonaren garaietatik hona. Lehen, jateko haina ereiten zuten familiek, baina orain, esportatzeko produktuak –zuke-kainabera, kafea, kakaoa– lantzen dituzten nekazariei bakarrik laguntzen die gobernua, Europan eta AEBetan saltzen baitira produktu horiek. Susanaren

ustez, arazoa da herrialde pobreetako nekazariak ezin dutela beren produktuen prezioak erabaki. Iparreko herrialde aberatsek erabakitzen dute nazioareko merkatuan, Hegoko produktuen truke zenbat ordaindu. Eta beti gutxi irabazten dutenez...

**Nola antolatu dira Teresaren auzoan egoera zailari aurre egiteko?**

# OSASUNA EDUKITZEKO ESKUBIDEA

## Osa ezazu zure osasan-karneta:

## Osa ezazu Elayan-en osasan-karneta:



© Tomás Abella - Internón Oxfam

Elayan 11 urteko neska bat da, eta Pune-n bizi da, Indian. Bere nebak Aziz du izena. Familiako besteekin bizi dira: gurasoekin, aitona-amonekin eta beste lau neba-arreba –bi mutiko eta bi neska– gehiagorekin.. Ahizparik txikiena helgorriak jota hil zen. Familia landatik etorri zen orain bi urte, bizitza oso zaila egin zitzaielako, saltzeko zeuzkaten produktu apurrak oso gaizki ordaintzen baitzizkieten.

Elayan bizi den etxeak ez dauka urik, auzoko guztiak bezalaxe. Horregatik, auzotik urrun joan beharra dauka ur bila. Han, esku-ponpa baten laguntzaz, batere osasun-kontrolik ez duen putzu batetik ateratzen du ura; askotan zikin samarra irteten da ura. Baina, hala ere, ur hori erabiltzen dute denek edateko, janariak prestatzeko eta garbitzeko.

Auzoan ez dago inongo osasun-zentrorik. Norbait gaixotzen bada, ospitalerik hurbilenera joan behar du, hirira. Ilara handiak egin behar izaten ditu zaindua izateko, auzo bakoitzean 10.000 lagun bizi baitira. Botikak errezetatzen badizkiote, edo txertoren bat jarri behar badu, ez du ordaintzerik izango agian. Horixe gertatu zitzaion Elayan-i: sukar handia izan zuen, beherakoa ere bai, eta 5 km-ko bidea egin behar izan zuen ospitalerik hurbilenera, ama Rahel-ek lagunduta.

Orain urtebete, komunak jarriko zituztela agindu zieten auzoei. Baina oraindik ez dira obrak hasi. Udaletzeko politikari batek azaldu zien, Gobernuak ez daukala dirurik komunak egiteko, dabilen ura ekartzeko eta ospitaleak eraikitzeko, herriak milioi asko zor dizkielako munduko herri aberatsenei, eta horiek presioa sartzen diote Gobenuari, ordain dezan. Bitartean, auzoan, ur zikina iragazi eta ur garbiarekin nahasten da. Eta, diotenez, arrazoi hori dela eta, putzuetako ura zikin dator eta gaixotasun handiak ekartzen ditu.

**Nire osasan-karneta**

Azken txertoa \_\_\_\_\_

Izandako gaixotasunak \_\_\_\_\_

Txertoaren kostua \_\_\_\_\_

Medikuari egindako azken bisitaren arrazoia \_\_\_\_\_

Familiako medikuaren izena \_\_\_\_\_

Bere ardurapeko gaixoen kopurua \_\_\_\_\_

Ospitalerik hurbilena \_\_\_\_\_

Etiketetik dauden kilometroak \_\_\_\_\_

**Elayan-en osasan-karneta**

Azken txertoa \_\_\_\_\_

Izandako gaixotasunak \_\_\_\_\_

Txertoaren kostua \_\_\_\_\_

Medikuari egindako azken bisitaren arrazoia \_\_\_\_\_

Familiako medikuaren izena \_\_\_\_\_

Bere ardurapeko gaixoen kopurua \_\_\_\_\_

Ospitalerik hurbilena \_\_\_\_\_

Etiketetik dauden kilometroak \_\_\_\_\_

## ZER EGIN DEZAKEGU?

**Irakur ezazu ondoko testua. Pentsa ezazu zer egin behar duen protagonistak (arrasto batzuk emango dizkizugu azkenean). Parteka itzazu zure gogoetak gelako kideekin.**

Paskual seigarren kurtsoko ikasle bat da. Eskolan, "Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalari" buruz hitz egin dute. Paskual hunkituta geratu da jakitean munduan neska-mutil asko daudela eskolara edo medikuarengana joaterik ez daukatena, edota elikadura egokirik ez dutena.

Eskolan kanpaina bat egin da GKE baten laguntzaz, Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala herri askotan ez dela betezen jakinarazteko.

Kanpainen parte hartzeko eskatu diote Paskuali, oso ondo marrazten baitu. Horrek esan nahi du hiru larunbat-goizetan eskolara joan beharko duela pankartak eta kartelak egiteko, prestatzen ari diren kanpainaren azken eguneko elkartasun-jaietan erabiltzeko.

Baina larunbat-goizetan saski-baloian aritzeko ohitura du, berak gehien maite duen kirola baita. Auzoko taldean jokatzeko du, eta kide onenetako bat da. Badaki ezin duela hutsik egin, bestela, entrenatzaileak aulkian utziko du eta titulartasuna berreskuratzea ez da batere erraza.

### Zer egin behar du Paskualek?

- Saski-baloiko partiduetara joan behar du, bere lehen konpromisoa taldean daukalako. Gainera, kanpaina berdina berdina egingo da, bera ez baita ezinbestekoa.
- Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala delako hori oso ondo dago, baina ez da Paskualen zeregina. Bere zereginak ikasketak eta zaletasunak dira, saski-baloia, adibidez, eta etorkizun ederra du horretan.
- Oso zaila izango da kanpaina horrekin ezer lortzea, munduko arazoak konpontzeko zailak baitira.
- Saski-baloia utzi eta elkartasun-kanpaina lagundu beharra dauka.
- Pentsa itzazu beste aukera batzuk eta taldean eztabaidatu.

# TXOSTEN KONFIDENTZIALA



NBen Idazkari Orokorrak Txosten bat eskatu dizue Giza Eskubideen Deklarazioaren 25 eta 26. artikulua muduan nola betetzen diren aztertzeko. Adituak zaretenez, txostenean proposamen batzuk ere eman behar dituzue arazo hori konpontzeko.

**25. artikulua: "Pertsona orori bizi-maila egokia dagokio, berari eta bere familairi osasuna eta ongizatea ziurtatzeko, eta bereziki, elikadura, jantziak, etxebizitza, osasun-zerbitzuak eta beharrezkoak diren gizarte-zerbitzuak..."**

## Elikadurari dagokionez

### Bete gabe

Gaur egun ..... milioi pertsona gaizki elikatuta daude.

Pertsona horiek..... herrialdeetan daude, eta horietarik 41 ..... bereziki.

Gaur egun munduan ekoizten diren elikagaiekin ..... milioi pertsona elika daitezke.

### Gomendioak-konponbideak

## Osasunari dagokionez

### Bete gabe

Gaur egun.....neska-mutil erraz senda daitezkeen gaixotasunek jota hiltzen dira.

Pertsona horiek Hegoko herrialdeetan daude, bereziki ....., Hego Amerikan eta .....

Egun bakar batez munduan armatan gastatzen den diruz, ..... milioi neska-mutilen heriotza saihesta daiteke munduan.

### Gomendioak-konponbideak

**26. artikulua: "Pertsona orok du hezkuntza izateko eskubidea. Hezkuntzak doakoa izan behar du. Oinarrizko hezkuntza derrigorrezkoa izango da..."**

## Hezkuntzari dagokionez

### Bete gabe

Gaur egun munduan ..... milioi neska-mutil ezin dira eskolara joan. Pertsona horiek.....

bizi dira, bereziki Afrikan eta .....

Guztientzako hezkuntzak esan nahi du madrildarrek eta katalanek 1996an .....-tan gastatua baino gutxiago gastatzea.

### Gomendioak-konponbideak

Txostena erabilgarria izan dakizun, adeitasunez

Sinadura  
Giza Eskubidetan Aditua